



*Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Sailburua
Consejero de Turismo Comercio y Consumo*

AGINDUA, 2024KO MAIATZAREN 28KOA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, MAIATZAREN 30EAN ARABAKO EGOITZA PRIBATUEN ETA ETXEBIZITZA KOMUNITARIOEN SEKTOREAN, DEITUTAKO GREBAN EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUSTEA BERMATZEN DUENA.

ELA eta LAB sindikatuek greba deitu dute Arabako Egoitza Privatuen eta Etxebizitza Komunitarioen Sektorian, 2024ko maiatzaren 30ean, 00:00etatik 23:59ra.

Grebarako deialdiaren helburua Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean jasota dago, eta hasitako espedientean jasota dago.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zehaztasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebaliaren eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio

Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Egun bakarreko greba da, 2024ko maiatzaren 30ekoa, lanaldi osoan, Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen sektorean, non eraginpeko zerbitzuen erabiltzaileen autonomia mugatuta dago, desgaitasun-mailak ezberdinak izanik batzuetatik besteetara.

Horrenbestez, behar bezala babestu behar dira bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasun-babeserako eskubideak —Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotakoak—, zeinak agintari publikoek bermatu behar dituzten beharrezko zerbitzuak eskainiz eta prebentzio neurriak ezarriz, eta, aldi berean, greba egiteko eskubidea zilegi dela kontuan hartuta. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri- ,tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Bestalde, osasunaren babesa herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubide gisa islatzen da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE,1948) 25.1 artikuluan dioenez, «Pertsona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako», eta zentzu berean adierazten dira Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua, Europako Kontseiluarena (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (NBE 1966) 12. artikulua.

Aurreko guztia kontuan izanik Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen sektoreko greba-deialdi berri horri dagokionez, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu beharko ditu egoitza arretan funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola bermatzeko, honako arau hauetan ezarritakoa kontuan hartuz: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua eta horrekin bat datozenak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez aldatua), eta Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Horren haritik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege-Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko –hala badagokio– eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du, inondik inora, de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia hutsaldu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura emanda; horrela, izaera mugatzailea kontuan hartuta ezarri beharrekoa da. Horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentzia jarraituz, beharrezkoa da, izaera mugatzaile horren barruan, proportzionaltasun egokia ere bermatzea, babestu beharreko gainerako eskubideei begira; hala, ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira murrizketa horiek.

Izan ere, lehen aipatutako arau-konfigurazioaren arabera, tutoretzapeko apartamentuek, hirugarren adinekoentzako egoitzek, etxebizitza komunitarioek eta eguneko zentroek «funtsezko» izaera dute, neurri handi batean, beren prestazioen onuradunak mendekoak direlako, eta, kasu gehienetan, gabezia handiak dituztelako beren osasunean, eta sistemaren laguntza integrala behar dutelako autonomiarako eta legez onartuta dituzten mendetasun-gradu desberdinei arreta emateko. Horri gehitu behar zaio laguntza pertsonalaren osagai handi bat, eguneroko bizitzako zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2. artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1. artikuluan.

Zerbitzu horien guztien oinarritzotasuna bermatu eta, aldi berean, langileen greba eskubidearen funtsezko edukiarekin uztartzeko, honako egoera hauek hartu behar dira kontuan:

1) Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 legearen, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituena, iraunkor bihur daitezkeenak baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bada. Kategoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren, Adintsuentzako funtsezko gizarte-zerbitzuei buruzkoa, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Tutoretzapeko apartamentuak: Pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten

egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

Etxebizitza komunitarioa: Bizikidetzeta-unitatea, gehienez 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

Egoitza: 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetzeta-zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta mendekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diena. Gradu handiko ezintasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko da ezinbestean.

2) Eguneko zentroko zerbitzuak mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaikuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Zentro hauen tipologia, horiek arautzen dituen araudiaren arabera, honako hau da: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikokoak eskaintzen dituztenak.

3) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan, hiru mendekotasun-gradu ezartzen dira, eta gradu horren arabera zehazten da mendekotasuna duten pertsonen arreta. Hori horrela izanik, «mendekotasun handia» (III. gradua) duten pertsonak egunero askotan behar dute laguntza eguneroko oinarrizko jardura batzuk egiteko, eta beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute, guztiz galdua dutelako beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala. «Mendekotasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jardura batzuk egiteko, egunean bizpahiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea; nolahi ere, laguntza premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendekotasun arina» dutenek (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jardura batzuk egiteko, gutxienez egunean behin, edo laguntza behar izaten dute, tarteka edo hein batean, beren autonomia pertsonalean.

4) Egoiliarren ezintasun-mailaren eta horren ondoriozko mendekotasunaren arabera, laguntza eta arreta integralerako hainbat maila daude zehaztuta pertsona horien eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan.

5) Sektore horretan pertsonen ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozialetan. «Zuzeneko arreta-zerbitzuak» izenekoak dira (osasun-arreta, arreta geriatrikoa eta abar), zalantzarik gabe, greba-egoeretan mantendu beharreko funtsezko zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonekin zuzenean lotuta daudelako. «Arreta zuzeneko zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, deialdi zehatz honetan, higiene pertsonala, eta zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen —bereziki, mendetasun handia dutenen— osasun narriatua zaintzeko

beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Era berean, «zuzeneko arreta zerbitzuaren» barruan sartzen da altxatzeko, garbitzeko, jantzeko edo jateko laguntza ematea.

6) Zuzeneko arretako zerbitzuez gain, beste zerbitzu batzuk ere badaude, neurri txikiagoan bada ere, ematen direnak eta aurrekoen zeharkako mende daudenak (garbiketa, garbitegia, sukaldea, etab.) edo egoitza-instalazioen eta -zerbitzuen koordinazioan, mantentze-lanetan eta segurtasunean laguntzen dutenak.

Sukalde-zerbitzuari dagokionez, elikagaiak prestatzeko mantendu beharko da, baina elikagaiak ahalik eta modu erraz eta sinpleenean egingo dira, medikuaren berriazko agindu zehatzik egon ezean, eta erabili eta botatzeko erabiliko dira, zeregin horretan ahalik eta denbora gutxien erabiltzea dakarten protokolo edo metodologiaren arabera. Era berean, garbiketa-zerbitzuek, zeharkako zerbitzuek, baina beharrezko higieena zaintzeko beharrezkoak direnek, intentsitate txikiagoarekin, egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesten duten oinarrizko zereginak egin beharko dituzte.

Mantentze-lanetako eta atezaindegia hartzeko zerbitzuek, funtsezkoak izan gabe, greba honetan gutxienez jotzen diren zerbitzuak eta instalazioak behar bezala funtziona dezaten laguntzen dute. Gutxienezko zerbitzu horien funtzionamenduan eragina izan dezaketen ustekabeak babestu beharreko funtsezko zerbitzuen berme gisa artatu beharko dira.

7) Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar burutu beharreko zereginen dagokionez, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa metatzen da goizeko lehenengo orduan (jaiki, higieen pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da. Hortaz, eguneko gainerako orduetarako ezarritako langile-kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jarduera txikiagoa baita gainerako ordu horietan.

8) Grebaren eraginpeko zentroen espazioaren konfigurazioa ere kontuan hartzekoa da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxienezko zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsonen arriskurik sortu gabe emango direla.

9) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsal dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzerazinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekotasuna edo mendekotasun handia dute pertsonen kasuan batez ere), kronikoa izaten da sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, arriskuan jar daiteke zainketa horiek behar dituzten osasuna.

10) Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak dira; pertsonen mendekotasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantillei eta koadranteei dagokienez batez ere. Hori dela-eta, oso zaila da honelako agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarrizko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarrizko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten, bai eta greba egintzat har dadin.

11) Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 10. Zehaztapen Teknikoak ezartzen ditu gizarte baliabide hori behar bezala emateko behar diren gutxieneko langile-ratioak, langileen lankarga eta erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta. Ratio horiek saihesta daitezke greba-egoeretan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarrizko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.

12) Arreta zuzenaren eta 6. puntuan zehaztutako zerbitzuen (garbiketa, sukaldea eta harrera-atezaintza) funtsezkoatasun-irizpide bera gertatzen da mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroekin ere. Zentro horiek, oro har, egoitzetan baino langile gutxiago dituzte, eta urriaren 17ko 202/2000 Dekretuan arautzen dira. Baimentzeko irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinari dagokionez (8. apartatua, zehazki, langilei buruzkoa da).

Zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaiak xedatzen duenez, *«greban zehar haiiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarrizko izaerarekin. Gu ere bat gatoz oinarrizko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroei eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroei dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardua duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lanjarduera, lanegun bat baldin bada».*

Zentro horietan funtsezko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendekotasun egoeran dauden pertsonen garraioa, baldin eta egin behar dituzten joan-etorriak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira egin haien mugikortasun-ahalmenera egokitutako bestelako garraiobideen bitartez. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarrizko funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan).

Horren harira, gobernuko agintaritzak honek portzentaje jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo izan baita zerbitzua azaldu den bezala emateko xedea ezartzea. Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak bere irizpena eman du gai horri buruz, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdiaren kariatz ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko Aginduaz 2013ko irailaren 25ean emandako epaiaren bitartez. Epai horretan, garraio-mota horri dagokion oinarritzko zerbitzuaren izaera aitortzen dio Auzitegiak, eguneko zentroek ematen duten oinarritzko zerbitzura iristea bermatzen duelako. Hala ere, Salaren ustez, xedapenak motibazioa falta du, «zerbitzuok emateko deia jaso duten langileen greba-eskubidearen mugaren proportzionaltasunari erreparatzen bazaio».

Aipatu behar da gobernu honek ez duela ehuneko zehatzik ezarri sektorean errealitate desberdin asko daudelako eta haiek guztiak ezagutzea zaila delako; hori dela eta, aipatutako testua nahikotzat jo zen.

Greba-eskubidea baliatzeko aukera mugatzeak sortzen duen arazoa da kasu honetan aztergaia, zerbitzu hori emateko soilik kontratatu diren eguneko zentroetako langileen kasuan. Izan ere, erabiltzaileen ezintasunen ondorioz, zerbitzu hori emateko guztiz beharrezkoa da gidari bat eta begirale edo laguntzaile bat egotea, eta ezin da ezarri %100etik beherako portzentajerik. Bestalde, kasu hauetan ezin da ezarri eman beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea baxuagoa izan dadin. Izan ere, horrek langile horien lanaldia luzatzea eragingo luke, ohiko lanaldia baino luzeagoa ezarrita. Ondorioz, egoera honetan garraio bereziaren funtsezko zerbitzua bermatzeko eman behar den zerbitzuak guztiz mugatu diezaike greba egiteko eskubidea langile horietako batzuei, zerbitzu hori egin dezaketen bakarrak direlako, baldin eta ez badago bestelako garraiobiderik, erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara aski egokituta dagoenik.

13) Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez. Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien gutzirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.

Orain arte azaldutakoarekin bat etorriz, eta laburpen gisa, kontuan hartu behar da, 2024ko maiatzaren 30ean, deitutako greba-eskubidea egikaritu bitartean, Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen sektorean, ezinbesteko pertsona-kopuru batek eman behar duela «zuzeneko arretako zerbitzuak» eta zerbitzuen funtsezkotasuna bermatzeko ezinbestekoak diren beste jardura batzuk. Hori dela eta, Jaurlaritzak agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiteko.

Premisa horietatik abiatuta eta 2024ko maiatzaren 30ean deituriko greba egun bakarreko greba dela kontuan hartuz (egun osoko greba), honako hau ezarri behar da: Arabako Egoitza Pribatuen eta Etxebizitza Komunitarioen Sektorean, zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo antzekoen % 50ek eman behar dute zerbitzua,

otorduetako ohiko ordutegian izan ezik, eta goizeko 8: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara, horietan portzentaje hori % 10 handituko baita, eta soilik egoitza pribatuetan eta etxebizitza komunitarioetan, baldin eta erabiltzaileen profilak, % 70etik gora, II. edo III. mailako mendekotasun aitortua bada, gerokultorea edo antzekoa den pertsonala % 70ekoa bada. Kuantifikazio hori 2018ko martxoaren 8ko greba orokorra dela-eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 218/2018 prozeduran 2018ko uztailaren 18an emandako epaiaren arabera egiten da. Era berean, gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek eman beharko du zerbitzua, eta egin beharreko lanak zuzeneko arretakoak baino ez dira izango.

Adierazi den bezala, zuzeneko arretaren funtsezkotasun-irizpide bera aplikatu behar zaie eguneko zentroei ere, oro har egoitzetan baino langile gutxiago baitituzte. Horregatik, zuzeneko arretako zerbitzuak zuzeneko arreta hori ematen duten langileen % 50ekin mantendu beharko dira, gosariaren eta bazkariaren ohiko ordutegian izan ezik, orduan ehuneko hori % 10 igoko baita.

Sektore horretako greba-deialdietarako eman berri diren gutxieneko zerbitzuen aginduek ikuztegi-zerbitzua barne hartzen badute ere, greba-deialdi hau egun bakarra da, eta, beraz, ez da beharrezkoa.

Gutxieneko zerbitzu horiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2018ko uztailaren 18an emandako epaiaren ondoren, 2019ko martxoaren 8an, 2019ko irailaren 27an, 2020ko urtarrilaren 30ean eta 2023ko azaroaren 28an deitutako greba orokorren harira emandako aginduetan ezarri izan dira, baita, berrikiago, 2023ko maiatzaren 22ko, 2023ko ekainaren 23ko eta 2023ko urriaren 2ko aginduetan ere, Arabako Egoitza Pribatuen eta Etxebizitza Komunitarioen Sektorean hiru greba egiteko eman baitziren.

Agindu horiek, greba-deialdi honetan gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridikoa izan gabe – doktrina konstituzionalak debekatutako inferentzia –, aukera ematen dute egiaztatzeko agindu honek babestu nahi dituen eskubide eta ondasunetan – grebarena barne – eragin positiboak edo negatiboak izan dituztela deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesei dagokienez. Horregatik, eta kontuan hartuta antzekotasun funtzionala, lurraldekoa eta aldi baterakoa, bai eta eraginpeko pertsonen kolektiboena ere (enpresak, grebarekin bat egin duten pertsonak eta zentroetako erabiltzaileak), agindu honek orain arte ezarri diren gutxieneko zerbitzuei eusten die.

Inguruabar horiek guztiak eta jurisdikzio-babeseko 1288/2017 eta 873/2018 errekurtsoetan emandako epaiak, besteak beste, aurreko deialdietan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko garaian baloratu dira. Hain zuzen ere, aipatutako bigarren epaiak, aurrekoarekin lotuta, honako hau dio berariaz: «Nabarmendu behar dugu, sektorearen berezitasunari, zerbitzuen hartzaleei eta egoitzen hartzaleei dagokienez, justifikatuta dagoela gutxieneko zerbitzuak ezartzean jardutea, prebentzioz, Bizkaiko sektoreko grebarekin lotuta Salaren aurrekarietan baloratu ziren egoerak ez sortzeko. Egoera horiei

buruzko epai guztietatik, 1288/2017 Babes Jurisdikzionalako Errekurtsoan emandakora jotzen dugu».

Azkenik, eta gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak aplikatzeko moduari dagokionez, agindu honek Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitzen sektorean maiatzaren 21etik 25era bitarteko grebarako deialdia egitean ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak arautzen dituen 2019ko maiatzaren 20ko Aginduan jasotako idazketa errepikatzen du. Agindu horrek gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak zenbatzeko modua aldatu zuen, eragindako eskubideak babesten saiatzeko. Formula hori honako agindu hauetan errepikatu zen, besteak beste: 2019ko azaroaren 8ko eta abenduaren 11ko Aginduak; 2020ko urtarrilaren 10eko, otsailaren 6ko, martxoaren 6ko, urriaren 2ko, urriaren 6ko, abenduaren 4ko eta abenduaren 18ko Aginduak, Gipuzkoako eta Arabako Egoitzen Sektorean deitutako grebetan emanak; eta 2021eko abenduaren 10eko Agindua, Bizkaiko Egoitzen Sektoreko grebarako gutxieneko zerbitzuak arautu zituena; Gauza bera egin zen 2024ko apirilaren 23ko Aginduan, enpresa berean 2024ko apirilaren 25ean deitutako grebarako.

Gobernu Agintaritzari gai honetan eskumen eskusiboa esleitzeak bermatu nahi du greba-eskubidearen erabilerak izan behar dituen mugak Zuzenbidearen arabera baino ezin izango direla ezarri, oinarrizko beste eskubide batzuk betetzera bideratutako funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, eta gobernatzeko erantzukizuna eta ahala duenak bakarrik.

Hori dela eta, Lan Harremani buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkariak, baita Foru Aldundiari ere, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharizanari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) apartatua: zerbitzu publikoak edo premia aitortua eta atzeraezina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak, ordezkotzaz, Lehendakariaren apirilaren 26ko 16/2024 Dekretuare arabera (dekretu horren bidez, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua kargutik kendu zen), eta, era berean, Eusko Jaurlaritzak eskuordetuta, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena. -Agindu honetan ematen diren gutxieneko zerbitzuak:

1. Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen sektorean langileek 2024ko maiatzaren 30ean, deitutako greba-eskubidea baliatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da arreta zuzeneko zerbitzuak mantentzea, horiek gutxienezkotzat jo behar baitira eta egoiliarren bizitza eta osasuna bermatzen baitute, haien beharren arabera. Beraz, ohetik jaikitzeke eta oheratzeko (jarrera-aldaketak eta abar barne), osasun-laguntzarako (medikazioa, sendaketak eta abar), oinarritzko higiene pertsonalerako, elikadurarako eta botikak emateko behar diren zerbitzuak emango zaizkie. Era berean, zeharkako oinarritzko gutxieneko arreta-zerbitzu gisa ezartzen dira.
2. Ondoren aipatzen diren langileek jarraian zehazten den moduan egin beharko dituzte jarduera horiek:

2.1. Oro har.

2.1.1. Portzentajea kalkulatzeko:

- a) Ehuneko 1 baino baxuagoa bada, pertsona bati dei egingo zaio, gutxieneko zerbitzuak eman ditzan.
- b) Gainerako kasuetan, emaitza zenbaki zatikiarra bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

2.1.2. Artikulu honetan gutxienezkotzat hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile-kopuru hori ez zaie gehituko beste zerbitzu edo arretei.

2.1.3. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen kopurua hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen «bat datozen» gutxieneko zerbitzuak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxieneko zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

2.1.4. Medikuek bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez duen heinean, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei emateko prozesua ahalik eta modu simple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak baliatuta eta

lanak egiteko ahalik eta denbora gutxien eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi dutenetatik ahalik eta langile gehienek baliatu ahal izan dezaten eskubide hori. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

2.1.5. Lehenetsuna izango dute mendekotasuna duten pertsonen higiegi pertsonala zaintzeko eta pertsona horiei botika edo elikagai terapeutikoak emateko lanek — betiere, medikuak aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude—, arreta hori gabe arriskuan leudekeen heinean. Halaber, edozein kasutan, oinarritzko higiegi pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da.

2.1.6. Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketean arloetan egingo dira garbiketa-lanak. Horretarako, deialdi honetan erreferentziazko irizpideak izango dira behin eta berriz aipatu ditugun osasun gomendioak, bai eta Laneko eta Osasuneko Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokolo dokumentatuak ere.

2.2. Egoitzak:

Egoitzetan zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo antzekoen % 50ek jarraituko du, otorduetako ohiko ordutegian izan ezik, baita goizeko 08: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara ere, orduan ehuneko hori % 10 igoko baita.

Erabiltzaileen profilarren % 70 baino gehiago II. edo III. mailako mendetasun-maila aitortua duten egoitzetan soilik, gerokultoreak edo antzekoak % 70 izango dira.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta egin beharreko zereginak «zuzeneko arreta» gisa egituratutakoak baino ez dira izango.

Txanda guztietan egin beharreko lanak arreta zuzenekoak izan ohi direnak izango dira.

2.3. Eguneko zentroak:

Eguneko zentroetan, greba-egunean zuzeneko arretako zerbitzuei eusteko, arreta zuzen hori ematen duten gerokultoreen edo horien pareko langileen % 50ek lan egingo du. Gosariaren eta bazkariaren ohiko ordutegian izan ezik, ehuneko hori % 10 handituko baita.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira.

Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

2.4. Etxebizitza komunitarioak:

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekoen %50 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori %10 igoko baita.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta «zuzeneko arretako» zereginak soilik egingo dira.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira.

2.5. Osasun-langileak:

OLT/EUD langileen %50 egongo da.

2.6. Sukaldeko langileak:

Langileen %50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

2.7. Garbitzaileak:

Langileen %20ek lan egingo du. Garatu beharreko lanak agindu honen 2.1.6. apartatuan aipatutakoak izango dira eta egiteko beharrezkoa den denboran baino ez dira egingo.

2.8. Ateko/harrerako langileak:

Egoitzako sarrera nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunetarako baino ez du emango zerbitzu hori pertsona batek, txanda bakoitzean.

Bigarrena. - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo batbateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Hirugarrena. – 1. Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte lehentasunez aipatutako zerbitzuak.

2. Langileen ordezkarietara entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Laugarrena. Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Bosgarrena. - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere



murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Seigarrena. - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zazpigarrena. - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritza honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen,

JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA

Ordezkozaz, Lehendakariaren apirilaren 26ko 16/2024 Dekretuaren arabera, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko daiburua kargutik kentzea xedatzeko dena.